

Ezkurra

EZKURRA ALA EZKURRA da lehena? Horra paradoxa. Albaitariak eta arrautzazaleak beste upel bateko sagardotan ibiltzen dira: “Oiloa ala arrautza da lehena?”. Geurea landareak, eta ezurrari heldu behar. Zein da, bada, lehena, ezkurra ala ezkurra?

Ezkurra *Quercus* generoko zuhaitzen fruitua da. Hemen ezagunenak: abaritzza (*Quercus coccifera*), artea (*Q. ilex*), ametza (*Q. pyrenaica*), ametz ilaunduna (*Q. pubescens*), erkametza (*Q. faginea*), artelatza edo arka murka (*Q. suber*), haritz kandugabea (*Q. petraea*), haritz kanduduna (*Q. robur*), norteko haritza edo haritz amerikarra (*Q. rubra*) eta berauen arteko hibrido ugariak, *Quercus* jende horretako espezieak, genero gutxitan bezala, elkarren artean nahastu eta hibrido berriak sortu zaleak baitira. Makina bat buruhauste eragiten diete botanikariei. Zenbait tokitan pagatxari, pagaziari, pagahurriari, pagoaren (*Fagus sylvatica*) fruituari, ere “ezkurra” deitzen zaio, “pago ezkurra”.

Ezkurra zuhaitza ere bada. Zuhaitza esateko era ugariaren artean berezietako bat: ezkurra.



CEBES-CC BY 3.0

Artearen (*Quercus ilex*) ezkurrak.

Azkiek adiera hori jasotzen duen esatera pare bat bildu zuen: “Zozpolak dirudi bere egurra eta egurra ezkurra” (“ezpala egurretik eta egurra zuhaitzetik”) eta “Ezkur berereango zia” (“zuhaitzetik ziria”; “zuretik ezpala” esaeraren tankeran).

“Ezkur berereango zia” esaeran “zia” hitza “ziria” bezala interpretatzen dute (R.M. Azkiek berak, René Lafonek.). Bizkaieraz agian hala da; baina, ez ote da ekialdeko “zia”? Koldo Mitxele-

nak antzinako “zini”-tik eratorritakotzat jotzen du: zia=ezkurra. Artearen ezkurra: artazi. Eta horrela, “ezkur berereango ezkurra” edo “ezkurretik ezkurra”, hau da: “Zuhaitzetik ezkurra”. Polita litzateke...

Ezkurra diruaren sinonimoa ere bada. Aberastasuna ezagutzeko abereak zenbatu behar badira, abere horiek elikatu eta gizenduko dituen ezkurra bera, txanpon egokia... ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Zer iritzi daukazu BRF delakoarekin (*Bois Raméal Fragmenté*) egiten den baratzeaz?

Hasier Etxeberria (Gaztelu)

Kaixo Hasier. Baratzean landareen arteko tartea estaltzeak bi helburu ditu: hezetasunari eustea eta belar “txarrak” atzeratzea. Lana eta ura aurreztu nahi izaten dira. Estalkia era askotakoa izan daiteke: plastikoa, oihala, papera, kartoiak edo edozein inaurkin organiko: ezpala, lastoa, orbela, belar ondua, garoa, belar berdea...

Lur eta ingurune lehorretatik dator teknika. Kontuz geurean. Europako toki bakanetakoa da hau, ur kantitate eta hezetasun ikaragarriagatik. Teknika horrek hezetasunari eutsi nahi dio, ureztatze premia apalduz eta landarearen estresa baretuz. Zure baratzean hezetasun horren altzoan gaitzak gozo zabalduko dira, gehienak onddoek sortuak baitira...

Hemen askoz egokiagoa litzateke berez sortzen zaizkigun belar “txarrak” uztea. Askotan alferrikako lana jartzen diogu gure buruari: estetikagatik. Utzi belarrak eta tartean haziko dira bai barazki bai eta fruituak. Eta, itzaletan, eguzki errainu erretzaileetatik babestuta, inon baino guriago, xamurrago eta goxoago. ■